



IRUTXULOKO

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#) [Onartu](#)

2016-12-19

Nork: [Lide Ferreira](#) -Abe 16, 2016

EMAKUMEZKOEN I. ESKU PILOTA TXAPELKETA EGINGO DUTE SAN TOMAS EGUNEAN

Guztira, 216 postu jarriko dituzte abenduaren 21ean; Konstituzio plazan Potxola izeneko txerria egongo da, Donostian izan den txerrik lodiena.



Abenduaren 21ean, [San Tomas eguna](#) ospatuko da Donostian. Jaiaren gune jendetsuenak hiriaren erdialdea eta Parte Zaharra izaten diren arren, [auzoetan ere egongo da zer ospatu](#). Izan ere, asteazkenean bertan, Sagues, Antigua, Amara Berri, Amara eta Grosen egitarau zabalak prestatu dituzte. Egun handirako prestatzen hasteko, gainera, aukera ere egongo da. Bihar, larunbata, Morlans eta Bidebietan San Tomas azoka eramango dute auzora; eta, igandean, Ibaetak, Loiolak eta Intxaurrendok hartuko dute lekukoa.

Urtero bezala, abenduaren 21eko **protagonista txerria izango da**. Aurtan, Leitzako Arro baserriatik ekarriko dute Konstituzio plazara, eta bertan egongo da 10:00etatik 20:00etara. **Potxola** du izena, eta inoiz Donostiako San Tomas egunean izan den txerrik lodiena da: **408 kilo** inguru izango ditu. Horretaz gain, **hainbat produktutako 216 postu jarriko dituzte**: aritsautza, edariak, kontserbak, loreak, gozogintza, txistorra, sagardoa, taloak eta abar.

[Egun osoko egitaraua](#) prestatu dute, eta jana eta edanaz gain, beste hainbat jarduera egongo dira. Ezti lehiaketa, Euskal Herriko XXI. Txistorra Lehiaketa, haurrentzako jolasak eta tailerrak, herri kirolak, bertsolariak, euskal dantzak eta abere erakusketa, besteak beste.

Emakumezkoen txapelketak

Berritasun gisa, Trinitate plazan, 11:30etik 13:00etara, San Tomas eguneko **Emakumezkoen I. Esku Pilota txapelketa** egingo dute. Banakako bi partida jokatuko dira, eta irabazleek gero finala jokatu dute. Parte hartuko dute bertan Patri Espinal eta Leire Gabirondo donostiarrak, Alegiako Ainhoa Garmendiak eta Anoetako Maider Mendizalek. Trinitate plazan bertan, ondoren, **Emakume Aizkolarien Urrezko I. Kopa** egingo dute. Lau partaideek 36 hazbeteko bost enbor horizontalean ebaki beharko dute.

Txikiek eta helduek elkarrekin gozatzeko jarduera berri bat antolatu dute aurtan. Museo enogastronomikoak egingo dituzte. Ordiziako D'elikatuz Zentroaren elikadura osasungarriari buruzko tailerra, Artoaren iraultza tailerra, Gazta dastaketa familiar tailerra, txakolina eta muztioa familiarean dastatzeko tailerra...



LIDE FERREIRA

Ez dago iruzkinik


EGIN IRUZKIN BAT



San Tomas eguneko egitaraua aurkeztu dute. (Argazkia: Lide Ferreira)



AZKENAK



UDAL LIBURUTEGI NAGUSIARI TXILLARDEGI IZENA JARTZEKO BORROKAK ZUTIK DARRAI



TXALOARTEAN ETA HUNKITUTA AURKEZTU DUTE DONOSTIAKO PROTOKOLOA



ETIOPIA UTOPIAKOEN GIROTUKO DUTE SAN TOMAS EGUNA ANTIGUAN



EASO PLAZAN ERE OSPATUKO DUTE SAN TOMAS FESTA

Izena *

Email *

Website

BIDALI IRUZKINA

[Nor Gara](#) | [Kontaktua](#) | [Iragarri](#) | [Tel: 943 467236](#) |
[Cookie politika](#) | [Lege Oharra](#) | [Pribatutasun Politika](#)



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastian
Euzkoak 2014

